

NAFARROAKO HEZKUNTZA PUBLIKOAK BEHAR DUEN ITUNA

Inbertsiorik gabe,
kalitatezko hezkuntzarik ez



24/25 ikasturtean “Hezkuntza publikoaren alde - muévete por la pública” kanpainaren baitan, ehundaka irakaslerekin batzartu ondoren, bertan jasotakoa batu dugu hurrengo orrialdeetan. Proposamen honetan jaso dugu kalitatezko hezkuntza sistema batera gehiago hurbilduko gintuzkeen ituna. Irakasleen lan-baldintzen hobekuntza du oinarri.

Edozein ekarpen edo hausnarketa helarazteko, igorri hona: muevetepublikoarenalde@gmail.com

RATIOAK

Ratioen jaitsiera lineala eta progresiboa

Matrikula biziaren % 10i dagokionez, 25-26 ikasturtetik aurrera, ezarritako ratioa gainditzen bada, taldea bitan banatuko da. Lekurik egon ezean, irakasle gehiagorekin indartuko da.

Ikasle errepikatzaileak beste edozein ikaslek bezala hartuko dira aintzat, haien arreta beste edozeinek bezainbeste garrantzi baitu.

	24-25	25-26	26-27	27-28	28-29	29-30	30-31
Haur Hezkuntza	25	23	22	21	20	18	16
Lehen Hezkuntza	25	23	22	21	20	19	18
DBH	30	28	26	25	23	22	20
Batx	33	32	30	27	25	24	23
L.Heziketa	20	19	18	17	15	14	
Oinarrizko L. Heziketa	15	14	12	10	8		

* Urdinez markatutakoa legegintzaldi honen amaieran lortuko litzateke.

Bikoizketak Lanbide Heziketan

Goi eta Ertain mailan

Modulu teorikoak	Modulu praktikoak. Ratioak bikoizketak egiteko				
	1 kategoria	2 kategoria	3 kategoria	4 kategoria	5 kategoria
25 (20 sarbide berrikoak)	18	18	17	16	15

Oinarrizko Lanbide Heziketa

Modulu teorikoak	Modulu praktikoak. Ratioak bikoizketak egiteko				
	1 kategoria	2 kategoria	3 kategoria	4 kategoria	5 kategoria
15	13	13	12	11	10

Landa Eremuko Eskoletako Ratioak

Taldekatzeak	Gehienezko ikasle kopurua
Haur Hezkuntza	
3 maila bateratuak dituzten unitateak	10
2 maila bateratuak dituzten unitateak (3-4 urte edo 4-5 urte)	12
Lehen Hezkuntza	
2 maila ezberdineko ikasleak dituzten unitateak	13
3 maila ezberdineko ikasleak dituzten unitateak	10
4 edo 5 maila ezberdineko ikasleak dituzten unitateak	8
6 maila ezberdineko ikasleak dituzten unitateak	7
Etapen arteko ikasgela mistoetarako	
2 etapa ezberdinetako 2 mailako ikasleak dituzten unitateak	10
2 etapa ezberdinetako 3 mailako ikasleak dituzten unitateak	8
2 etapa ezberdinetako 4 mailako ikasleak dituzten unitateak	7
2 etapa ezberdinetako 5 mailako ikasleak dituzten unitateak	6 + laguntzako irakaslea lanaldi erdian

Orientazio - ikasle ratioa

Orientatzaile bat gehienez ere 250 ikasleko.

Ikasle erroldatu asko dauden ikastetxeetan ikasle erroldatu bakoitzak x2 balio izatea.

Egungo Gobernua osatzen duten alderdien akordio programatikoan, Hezkuntzan Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 5 eko inbertsio adostua dute, baina ez dute bete. UNESCOk gutxienez % 6 gomendatzen du.

GAINZAMA

Irakaskuntza zuzeneko saioak murriztu

Haur eta Lehen Hezkuntzan: 23tik 20ra. 2026-2027 ikasturterako. Hezkuntza bereziko ikastetxeetan 18ra jaitsi.

Bigarren Hezkuntzan: 18tik 16ra jaitsi. 2027-2028 ikasturterako.

Ordezkapenak etapa guztietan lehen egunetik

PT eta AL espezialisten koordinazioa bermatu

Zuzeneko saioen jaitsiera koordinazioetara bideratu.

**Inbertsio
gehiago!**

Psikologoak, erizainak eta osasun mentaleko profesionalak kontratatu edo osasun departamentuarekin lotura egin

Irakasleoi askotan egozten zaizkigu ez dagozkigun lanak. Hala nola, ikasleen osasunean eragina duten arazoak artatuz, horretarako bestelako profesionalak behar direnean.

Ikasle kopurua	Psikologoa / osasun mentala	Erizaina
300 arte	1 murriztuan edo partekatua	Erizain bat 2-3 ikastetxeren artean partekatua
300-500	1 osoan	1 murriztuan edo partekatua
500-1000	1-2	1
1000tik gora	2 edo gehiago	1-2

* Beren berezitasunetatik Lanbide Heziketako ikastetxe guztietan erizain bat egonen da.

Eskolako proiektu, plan eta programa kopurua murriztu

Ikasturte bakoitzean eskolan gehienez ere 2 proiektu baino ezin izango dira aurrera eraman.

Proiektuetako arduradunak orduz hornitu.

Bikoizketak eta irakaskuntza partekatua sustatu

Bikoizketak eta irakaskuntza partekatua sustatuz gero, behar bereziak dituzten ikasleak edo errendimendu txikia duten horiek indartzen dira. Eskola porrota murrizten da. Ikasleei arreta zuzenagoa eskaintzen zaie. Irakasleen asebetetze maila areagotzen da eta irakasleak eskola zaurgarrietan finkatzea errazten du. Irakasleen arteko talde lana indartzen da.

- 4 unitateko irakasle laguntzaile bat.
- Tutoretza bikoitza 20 ikasle baino gehiago dituzten Bigarren Hezkuntzako taldeei.

Deskonexio digitala

Laneko komunikazioak jasotzeko bide bakarrak "ofizialak" izanen dira: Educa eta @educacion.navarra.es korreo korporatiboa.

Komunikazioak jasotzeko ordutegia mugatu eskola bakoitzeko ordutegiaren arabera. 37,5 orduak gaingitu gabe.

Kanpaldi eta irteerak

Eskolaz kanpoko ordutegian garatzen diren jardueretan parte hartze boluntarioa.

Parte hartzen dutenei administrazioetako gainontzeko sektoreetan ordaintzen dena ordaindu osagarri edo plus moduan (arriskugarritasuna, gauak, dietak, berariazko jantziak...).

Bestelako profesional publiko gehiago jatorduetan, gauetan, etab. ez bakarrik kirol eta kultura jardueretan.

Jardunaldi jarraia

HH-LH etapetan jardunaldi jarraia duten ikastetxeetan arratsaldeko eskolaz kanpoko saioak goizeko zuzeneko saioak izanen dira.

Ikastetxeak ordu horiez hornitu.

Zuzendaritza taldeak eta mintegi edo Departamentu buruak

Adinagatiko ordutegi murrizketa bateragarria ardura hauekin.

Zuzendaritza arduretarako orduak igo.

Landa eremuko eskolak

Orientatzaile gehiago, zonalde bakoitzean hiru.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen (ACNEAE) adierazle negatiboa duten eskoletan laguntza ordu gehiago.

Azken urteotan gastu militarra nabarmen handitzen ari da hezkuntzako inbertsioa handitu beharrean.

Jantokiko arduraduna

Jantokiko arduradunei ordu lektiboetatik saioak eman jantokirako lanak egiteko.

EGONKORTASUNA

Ikastetxeetako plantillen egonkortasuna

Funtzionamendu plantilla eta organikoa bateratu.

3 urtez jarraian plaza bakante bat behin-behineko pertsona batekin bete bada, automatikoki plantilla organikoko plaza bezala jaso eta LEPea sartu.

Plaza bakoitza bere zenbakiarekin identifikatu, Hezkuntza Departamentuaren ikasturteroko iruzurra bertan behera uzteko eta kontratazio sistema gardenagoa izateko.

Hau egin ondoren, honen arabera % 8tik beherako behin-behinekotasun errelera iritsi.

Horretarako salbuespenezko LEPa egin. Sistema meritu lehiaketa baten bidez izango litzateke edo aitzine-kotasunaren balorazio maximoa aintzat hartzen duen oposizio-lehiaketa bidez (malgua, ez baztertzaila...).

Behin-behineko irakasleen egonkortasuna

Zerrenden kudeaketa

Behin oposizio bat gaingituz gero, zerrenda preferentean sartu betirako.

Ondoren, beste oposizio bat gaingituz gero 5 puntu gehitu baremoan. Beti ere, zerrenda preferentean aurkeztutako guztietan lortutako puntuazio altuena hartuko da aintzat.

Birbaremazioa urtero egin zerrenda guztietan, merituak etengabe eguneratuak izateko ikasturte bakoitzean.

Irakasle bakoitzak dituen tituluen arabera, zerbitzua eskaini dezakeen gainontzeko zerrenda orokorre-tan txertatu, zerrenda horietako oposizioetara aurkezteko beharra izan gabe.

Zerrenda guztiak erabat irekita.

Sarbiderako oposizio sistema

Oposizio sistema berri, azterketa motak arinagoak izateko.

Gaitegi ofiziala sortu eta garatu. Euskaraz eta gaztelaniaz. Objektibitatea bermatuz eta epaimahaien lana erraztuz.

Eredu publikoak programazioa eta unitate didaktikoak garatzeko.

Espezialitate bakoitzeko azterketa eredu bakarra hizkuntza edozein dela ere.

Betetzeko zailak diren lanpostuen araudia

Betetzeko zailak diren lanpostuak ikastetxe eta etapa gehiagotara zabaldu: Oinarrizko Lanbide Heziketa, ikasketa berriak ezartzen direnean, zailtasun handiko eskoletan, Hezkuntza Beregian, D eredu berria ezartzean...

EROSAHALMENA

Nafarroako KPla urtero aplikatu.

Nafar Gobernuak onartutako % 15eko galera berreskuratu osagarri espezifiko baten bidez.

- % 5 2026ko urtarrilean.
- % 5 2027ko urtarrilean.
- % 5 2028ko urtarrilean.

Mailen berregituraketa: irakasle guztiak A1 mailara pasatzea. Titulazioagatik A mailara pasa ezin diren horiek ere A mailara pasa. Lan berdina, soldata berdina.

ERRETIROA

60 urterekin jubilazioa irakasle guztientzat, plantillak gazteberrituz.

Errelebu kontratua edo erretiro partziala.

Hori lortzen ez den bitartean...

- 60 urtetik aurrera ordutegi osoaren 1/3eko murrizketa.
- 63 urtetik aurrera ordutegi osoaren 1/2ko murrizketa.
- 65 urtetik aurrera ordutegi osoaren 2/3eko murrizketa.

**Kalitatezko
hezkuntza
sistema publikoa
bermatu!**

Gaur egun 65 urte bete dituzten interinoek ezin dute kontratu berririk izan, soilik eskola berean eta lanpostu berean jarraitzen badute. Honen zailtasunen aurrean, proposamena:

- Lanean jarraitzeko aukera eman funtzionarioek bezala, gehieneko pentsioa lortu arte.

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lan arriskuen prebentziorako atalak txostenak egiten dituenean, maiz proposatzen diren neurriak ez dira ezartzen edo eragin oso mugatua dute.

- Prebentzio zerbitzu horretan langile gehiago eta proposatzen diren neurriak derrigorrez aplikatu eta eraginkorrak izan.
- Zerbitzua ere euskaraz eman.

**Irakasleen
lan baldintzak
hobetu!**